



## Kas Deprez & Armel Wynants

**K**as Deprez eta Armel Wynants hizkuntzalari flandiarak egun hauetan Publizitate eta Hizkuntza ez Normalizatuaren Lehenengo Kongresuan izan ditugu. Aukerari uko ezin egin, eta Belgikak egun bizi duen egoera soziala eta politikoa ezagutzeko el-

karrizketa egin diegu. Flandiar eta walloniarren arteko harremanak, bertako hiru hizkuntza ofizialen erabilera, politika linguistikoa eta hezkuntzak dituen arazoak aipatu ziren elkarrizketan. Hau da Belgikako bi biztanleek eta, era berean, bi adituek eskaini ziguten ikuspuntua.

## «Belgikan konfederazioa osatzeko aukera dago»

KOLDO GOITIA / DONOSTIA

**EGUNKARIA.**— Gaur egun zer nolako harremanak daude Belgikan bertako bi komunitateen artean, flandiar eta walloniarren artean?

**KAS DEPREZ.**— Hasteko, esan beharra dago Belgikan ez direla soilik flandiarak eta walloniarak bizi. Belgikako hegoaldean 60.000 lagun ez osatutako komunitate alemaniarra bizi da eta gaur egun, komunitate horrek bere eskubideak ditu beste bi komunitateak bezala.

**ARMEL WYNANTS.**— Bai, Belgikan bizi diren alemaniarrek flandiarrek eta walloniarrek bezalako eskubideak dituzte, beren erakunde kulturalak eta beren hezkuntza sistema berezia. Izan ere, Belgikan hiru hizkuntza ofizial hitzegiten dira: frantsesa, holandesa eta alemaniera. Alemaniarrek gutxiengoa izanik, noski, ez dute beste bi komunitateen indarra, baino eskubideei dagokienez, komunitate berezitat onartuta daude flandiar eta walloniarrekin batera.

**EGUNKARIA.**— Eta flandiarak eta walloniarak?

**DEPREZ.**— Bi komunitateak lurralde jakin batean bizi dira eta lurraldetasunaren printzipioa ezarri da. Flandiarak Belgikaren iparraldean bizi dira eta walloniarak, berriz, hegoaldean. Erdi erdian Brussel dago, hiriburua, Belgika osoan elebiduna den lurralde bakarra. Dena den, bi lurraldeen artean badago zehaztu gabeko zona elebiduna, baino legalki ez dago horrela onartuta.


**EGUNKARIA.**— Belgika osoan soilik Brussel da lurralde elebiduna?

**WYNANTS.**— Hori da, soilik Brussel inguruko lurralde txikia da elebiduna. Beste guztia lurretasunaren printzipioari jarraituz, walloniarra edo flandiarra da, edo alemaniarra. Lurralde hauek ez dira elebidunak, elebakarrak baizik, bertan ez dira bi hizkuntzak hitzegiten.

**EGUNKARIA.**— Orduan Flandrian inork ez du frantsesez hitzegiten?

**DEPREZ.**— Ez, bertan holandesez hitzegiten da eta Wallonian, berriz, soilik frantsesez. Lurralde bakoitzak bere hezkuntza sistema, osasun zerbitzuak, epaitegiak, eta abar ditu. Aurrerantzean Belgikan konfederazioa ezartzeko aukera dago, lurralde bakoitza kanpo harremanak, moneta eta Defentsa ezik, beste betekizun guztiak bereganatzen ari bait da, botere zentralari zeregin horiek bakarrik utziz.

**EGUNKARIA.**— Eta flandiar bat Wa-



Kas Deprez.

CARLOS VILLAGRAN

lloniara joanez gero, zer gertatzen da?

**WYNANTS.**— Flandiar bat Walloniara joanez gero edo alderantziz, walloniar bat Flandriara, bere bizitza

osoa beste hizkuntzan egin beharko du. Bere semeek beste komunitatearen hizkuntza ikasi beharko dute, lanean berdin, atzerrira joatea bezala da, den dena beste hizkuntza erabiliz



Armel Wynants.

C. VILLAGRAN

«Belgikako walloniarrek, flandiarrek eta alemaniarrek beren erakunde kultural eta hezkuntza sistema bereziak dituzte, hiru hizkuntzak ofizialak dira eta».

«Lurraldetasunaren printzipioa ezarri da hiru komunitateetan, eta eskualde bakoitza elebakarra da, Brussel hiriburua ezik, hirurak ofizialak dira han».

egin behar da.

**EGUNKARIA.**— Zer bilakaera izan du holandesaren erabilerak Belgikan?

**DEPREZ.**— Holandesa edo flandria-

ren hizkuntza joan zen mendean, Belgikako Estatuak independentzia lortu zuenean, iparraldeko nekazarien hizkuntza zen, herri xehearen hizkuntza. Burgesiak beti frantsesez egiten du Belgikan, bai Walloniako burgesiak bai Flandriakoak. Dena den, 1830. urtean Belgikako Estatuak sortu zenean, bertako konstituzioan bi hizkuntzak berdinak zirela esaten zen eta eskoletan, maisuaren arabera, hizkuntza bat edo bestea erabiltzen zen ikasketak egiteko. XX mendean, ordea, holandesak indarra hartu zuen, nahiz eta frantsesa oraindik hizkuntza «kultoa» izan. Horrez gain, Belgikako industria osoa Wallonian zegoen eta horrek ere bizitza politikoan eragin handia zuen.

**EGUNKARIA.**— Dena den, egun flandiarrek gehiengoa dira Belgikan, ezta?

**DEPREZ.**— Bai, flandiarrek gero eta botere handiagoa dute Belgikan. Gaur egun flandiarrek biztanlearen % 60ra hurbiltzen dira eta walloniarrek, berriz, % 40 inguruan dabilta. Gehiengoa izateaz gain, Flandriak azken 20 urteotan bilakaera nabarmena izan du. Flandria 1970. urtera arte Belgikako lurralde txiroa zen eta Wallonia aberatsa. Petrolioaren krisiarekin Walloniako siderurgiari kolpe handia jasan zuen eta industria iparraldera joaten hasi zen, Flandriara. Belgikako ekonomia Flandriako portuen inguruan sustatzen hasi zen eta Walloniako industria gero eta okerrago zegoen, lehen aipatu krisia zela eta.

**EGUNKARIA.**— Zer ondorio politiko izan zuen bilakaera ekonomiko horrek Belgikan?

**WYNANTS.**— Walloniako biztanleak flandiarrek Belgikako bizitzan gero eta botere handiagoa zutela ohartu ziren eta betidanik bi komunitateen artean izan diren mesfidantzak berpiztu ziren. Walloniarrek Belgikaren federalizazioa bultzatu zuten, bakoitza bere lurraldearen jabe bihurtzea nahi zuten, horrela flandiarrek Wallonian izan zezaketen eragina galaraziz. Hau dela eta, 1970. urtean federalizazioaren bidean lehen pausua eman zen eta Belgikaren izaera federala proposatu zen. Orduarte kultura munduan ezarriak zeuden mugak politikan isladatu ziren. Prozesu hau ez da amaitu eta lehen nere lagunak esan duen moduan, konfederazioa eraman gaitzake. Ikusi besterik ez dago azken gertaera politikoak Belgikan, duela gutxi egin ziren hauteskundeak aurreratzea bultzatu bait zuten.

## Belgika, Europaren barnean kasu bitxia

Belgikarena Europako beste edonon aurkitu ez daitekeen kasua da: bi hizkuntza dituzten bi komunitate partatuak Estatu bakar batean. Nahiz eta beste estatu batzuetan, Espainia, Frantzia, edota Erresuma Batuan hizkuntza ugari egon, hauek legalki ez daude onartuta edota hizkuntza ofizialaren azpian daude. Belgikan, ordea, bi hizkuntza indar bera dute eta nahiz eta frantsesak orain arte indarririk handiena izan duen, gaur

egun holandesaren azpian dagoela esan daiteke. Gure ikuspuntutik, zaila egiten zaigu pentsatzea ere, Euskal Herrian adibidez, soilik euskaraz hitzegingo dela hemendik urte batzuetara. Egund Espainiako mugen barruan Katalunia litzateke Belgikako kasuaren modukoa, nahiz eta kataluniarrek bederatzi milioi izanik eta indar politikoa nabarmena eduki, oraindik ere gaztelaniaren nagusitasunaren menpe egon.

Irlandako kasua, berriz, erabat alderantzizkoa da. Han Gobernuak bertako hizkuntza bultzatzeko ahalginak egin baditu ere, gaelikoz ez du ia inork hitzegiten eta atzerriko hizkuntza bat, ingelesera, erabat nagusitu da. Guretzat nahiko adierazgarri bihurtu da Irlandaren kasua, botere politikoa eskuratu arren, hizkuntza berpizte oso zaila izaten da aurretik bizirik iraun eratzeko ezer gutxi egin bada.